

EL AYUNTAMIENTO DE BILBAO PRESENTA LAS NUEVAS MEDIDAS PARA FOMENTAR EL USO DE LA BICICLETA EN LA CIUDAD

Bilbao se adhiere al BiciRegistro, pone en marcha 8 nuevos aforadores y amplía la red de Bidegorris con el tramo Norte Sur que discurre por Sabino Arana

Bilbao, 18 septiembre de 2019. Alfonso Gil, Teniente de Alcalde y Concejal de Movilidad y Sostenibilidad del Ayuntamiento de Bilbao, ha presentado hoy una batería de medidas para fomentar el uso de la bicicleta en la ciudad, con motivo de la celebración de la Semana Europea de la Movilidad. El acto ha tenido lugar en la confluencia del Parque de Doña Casilda con la calle Sabino Arana, donde arrancará la construcción del nuevo bidegorri Norte-Sur, que unirá esta zona verde con Ametzola. De esta manera, se sumará un nuevo tramo a la red ciclista de la ciudad, que cuenta actualmente con más de 41 kilómetros.

Por otra parte, Alfonso Gil ha anunciado la puesta en marcha de ocho nuevos aforadores en bidegorris, que permiten contar en tiempo real y con cifras acumuladas el paso de bicicletas a través de cada aforador. Los nuevos “contadores” están instalados en las calles Askatasuna, Avenida del Ferrocarril, Campo Volantín, Botica Vieja, Doctor Areilza, Julián Gaiarre, Lehendakari Aguirre, Olabeaga y Uribitarte y desde el mes de julio cuantifican el flujo de ciclistas. El aspecto de los nuevos aforadores es el de “estrellas” insertadas en la calzada bici que pasan bastante desapercibidos, con la excepción del primero implantado en noviembre de 2015 en el Campo Volantín, frente al Ayuntamiento, que cuenta con un tótem digital que contabiliza al momento el paso de las bicis y el acumulado anual.

El objetivo de los aforadores es conocer con precisión el tráfico de bicicletas en cada punto concreto para diseñar estrategias de cara a favorecer la implantación de mejoras que permitan promover y aumentar el uso de las bicicletas en todas las zonas de forma homogénea.


Así en el análisis de los dos últimos meses en los que han estado operativos los nueve aforadores se registró el paso de 158.239 bicis en julio y 145.422 en agosto. Las diferencias de ciclistas en este periodo entre unos y otros son notables. Algunos bidegorries como Olabeaga, Campo Volantín y Botica Vieja registran una gran afluencia, mientras otros contabilizan un número menor de pasos, como es el caso de Julian Gaiarre, Askatasuna o Avenida del Ferrocarril.



#SEMBilbao2019 | @SEM_Bilbao

MUGIKORTASUNAREN ASTEEUROPARRA
SEMANA EUROPEA DE LA MOVILIDAD

16-22 IRAILA SEPTIEMBRE

 #mobilityweek



MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN FERIA
FERIA DE LA MOVILIDAD SOSTENIBLE

AREATZA 19-22 ARENA

Oinez eta bizikletaz segurtasunez ibiltzea
Camina y pedalea con seguridad

En todo caso, a lo largo del año 2018 el aforador de Campo Volantín, operativo en ese periodo, sumó un total de 314.768 pasos de bicis, y ese mismo bidegorri lleva contabilizados 270.353 pasos hasta agosto, por lo que se prevé aumentar el número al finalizar 2019.

Bilbao se adhiere al BiciRegistro

En el año 2018 se presentaron en Bilbao 120 denuncias por robo de bicicletas, de las que 64 fueron recuperadas y 14 devueltas a sus dueños. De hecho, según el último Barómetro de la Bicicleta, a un 19,5% de los ciudadanos les han robado alguna vez la bicicleta. Muchas ciudadanas y ciudadanos alegan que el robo es una de las principales dificultades para desplazarse en bici por la ciudad. Pero, esto podría cambiar en breve con la adhesión de Bilbao al BiciRegistro, una medida que acredita la propiedad de las bicis, favoreciendo la identificación y recuperación de las bicis perdidas o robadas, y que minimiza el riesgo de robo.

El BiciRegistro consiste en un registro de bicicletas puesto en marcha por la Red de Ciudades por la Bicicleta, en el que los usuarios podrán registrar su bici, marcándola con una pegatina de difícil eliminación que deja un número permanente en el cuadro de ésta, incluso si se logra extraer el adhesivo, identificando así la bici de los usuarios, a través de la lectura del código grabado en el bastidor con un lector de luz ultravioleta. De esta manera, el BiciRegistro podría disminuir la probabilidad de robo y aumentar el número de bicis recuperadas y la rapidez para hacerlo. Con la ciudad está adherida al BiciRegistro, la Policía local tiene acceso a la web con las bicis registradas, localiza al usuario por el número de registro y se pone directamente en contacto con él para su devolución.

Para registrar una bici basta darse de alta como usuario en la web www.biciregistro.es, introduciendo la zona de registro y los datos personales del usuario, introducir el código con los datos identificativos de la bici, una fotografía de la misma para cargar en el sistema y realizar el pago online del coste, aproximadamente unos 7 euros. Finalmente, se valida el registro acudiendo al centro validador escogido.


Estas nuevas medidas del Área orientadas a fomentar el uso de la bicicleta en la ciudad vienen a sumarse a la apuesta del área por este medio de movilidad sostenible, junto al sistema de alquiler público de bicis y la implantación de aparcabicis, además de la pacificación del tráfico urbano en numerosas calles, que vuelven más atractivo el uso de la bici y convierten a la ciudad en un lugar menos contaminado y más amable para todas las ciudadanas y ciudadanos.



#SEMBilbao2019 | @SEM_Bilbao

MUGIKORTASUNAREN ASTEEUROPARRA
SEMANA EUROPEA DE LA MOVILIDAD

16-22 IRAILA SEPTIEMBRE

 #mobilityweek



MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN FERIA
FERIA DE LA MOVILIDAD SOSTENIBLE

AREATZA 19-22 ARENA

Oinez eta bizikletaz segurtasunez ibiltzea
Camina y pedalea con seguridad

URIAN BIZIKLETEN ERABILERA SUSTATZEKO NEURRI BERRIAK AURKEZTU DITU BILBOKO UDALAK

Bilbo Biciregistro-ko kide egin da, zortzi bizikleta-kontagailu jarri ditu abian eta bidegorrien sarea zabaldu du Sabino Aranatik doan iparra-hegoa tartearrekin.

Alfonso Gil Bilboko Udalaren alkateorde eta Mugikortasun eta Jasangarritasun Saileko zinegotziak gaur aurkeztu ditu urian bizikleten erabilera sustatzeko zenbait neurri, Mugikortasunaren Aste Europarraren ospakizunen barruan. Ekitaldia Casilda Iturrizar parkean egin da, Sabino Arana etorbideko gurutzean, bertatik hasiko baitira Iparra-hegoa bidegorri berria egiten. Hain zuzen ere, bidegorriak berdegune hori eta Ametzola batuko ditu. Horrela, bada, beste tarte bat egongo da uriko bidegorrien sarea, gaur egun 41 kilometro daudelarik.

Beste alde batetik, Alfonso Gilek bidegorrien zortzi bizikleta-kontagailu berri abian jarri direla adierazi du, kontagailu bakoitzetik zenbat bizikleta igarotzen diren zenbatzeko, denbora errealean eta kopuru metatuekin. Kontagailu berriak Askatasuna etorbidean, Trenbideko etorbidean, Campo Volantin pasealekuan, Botikazar erriberan, Areiltza doktoarearen kalean, Julian Gaiarre kalean, Agirre Lehendakariaren etorbidean, Olabeagan eta Uribitarte kaleetan jarri dira eta uztailetik aurrera bizikletarien joan-etorria zenbatzen dute. Kontagailu berriak izarren itxura daukate eta bidegorrian sartuta daude; hortaz, nahiko oharkabean pasatzen dira. 2015eko azaroan Campo Volantin pasealekuan, Udaletxearen aurrean jarritako lehenak, ostera, totem digital bat dauka eta unean zenbatzen ditu igarotzen diren bizikletan eta urteko kopuru metatua zein den adierazten du.

Kontagailuen helburua da bizikleten zirkulazioa une bakoitzean zein den zehatz jakitea, bizikleten erabilera gune guztietan modu homogeneoan sustatzeko eta areagotzeko hobekuntzak ezarri ahal izateko.


Horrela, bada, bederatzi kontagailuak martxan egon diren azken hilabete bietan, 158.239 bizikleta erregistratu ziren uztailean eta 145.422 abuztuan. Aldi horretan, batzuen eta besteen arteko aldea handia da. Bidegorri batzuetan, esaterako Olabeaga, Campo Volantin eta Botikazar erribera, joan-etorri handia dago, eta beste batzuek bizikleta gutxiago zenbatzen dituzte, adibidez Julian Gaiarre, Askatasuna edo Trenbideko etorbidea.



#SEMBilbao2019 | @SEM_Bilbao

MUGIKORTASUNAREN ASTE EUROPARRA
SEMANA EUROPEA DE LA MOVILIDAD

16-22 IRAILA SEPTIEMBRE

 #mobilityweek



MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN FERIA
FERIA DE LA MOVILIDAD SOSTENIBLE

AREATZA 19-22 ARENA

Oinez eta bizikletaz segurtasunez ibiltzea
Camina y pedalea con seguridad

Edozein kasutan, Campo Volantin pasealekuko kontagailua abian zegoen 2018an eta 314.768 bizikleta igaro ziren guztira, eta bidegorri horretan 270.353 bizikleta zenbatu dira abuztura arte; hortaz, 2019. urtea bukatzean zenbakia igo egingo dela aurreikusten da.

Bilbo Biciregistro-ko kide egin da

2018an 120 salaketa aurkeztu ziren Bilbon bizikleten lapurretengatik; horietatik 64 berreskuratu ziren eta 14 jabeei bueltatu zitzaizkien. Izan ere, bizikletaren azken barometroaren arabera, % 19,5 herritarri lapurtu diote noizbait bizikleta. Jende askok adierazten du lapurreta dela urian bizikletan ibiltzeko zailtasunik handienetako bat. Baina hori laster aldatu egin daiteke. Izan ere, Bilbo Biciregistro-ko kide egin da eta, neurri horren bidez, bizikleten jabetza ziurtatu ahal izango da. Horrela, galdutako edo lapurtutako bizikletak identifikatzea eta berreskuratzea erraztuko da, eta lapurretaren arriskua gutxituko da.

Biciregistro bizikleten erregistroa da eta Red de Ciudades por la Bicicleta sareak jarri zuen abian. Erabiltzaileek beren bizikleta erregistra dezakete eta eranskailu batekin markatu dezakete; eranskailua zaila da kentzen eta zenbaki iraunkor bat uzten du bizikletaren koadroan. Eranskailua kenduta ere, erabiltzaileen bizikletak identifikatu egin daitezke, bastidorean grabatutako kodea argi ultramore batekin irakurrita. Horrela, bada, erregistro horrek lapurreten aukera murriztu dezake eta berreskuratzen diren bizikleten kopurua igoko du, arinago berreskuratzeaz gain. Uria Biciregistro-n egonik, Udaltzaingoak erregistratutako bizikleten webgunera sar daiteke, erregistro-zenbakiaren bidez kokatuko du erabiltzailea eta harekin harremanetan jarriko da bizikleta itzultzeko.

Bizikleta bat erregistratzeko www.biciregistro.es webgunean eman behar da izena, erabiltzailearen gunea eta datu pertsonalak sartu behar dira, bizikletaren identifikazio-datuak eta argazki bat sartu, eta ordainketa egin behar da (7 euro gutxi gorabehera). Azkenik, erregistroa baliozkotu egin behar da aukeratzeko den zentroan.


Sailak hartu dituen neurri berri hauek urian bizikletaren erabilera sustatzeko dira eta garraibide jasangarri horren aldeko apustua berretsi nahi dute, bizikleten mailegu publikoaren sistemarekin eta bizikleten aparkalekuen ezarpenarekin batera. Horrez gain, hainbat kaletan zirkulazioa moteldu da eta horrek erakargarriago egiten du bizikletaren erabilera eta uria kutsadura gutxiagoko lekua egiten du, herritar guztientzako atseginagoa.



#SEMBilbao2019 | @SEM_Bilbao

MUGIKORTASUNAREN ASTEEUROPARRA
SEMANA EUROPEA DE LA MOVILIDAD

16-22 IRAILA SEPTIEMBRE

 #mobilityweek



MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN FERIA
FERIA DE LA MOVILIDAD SOSTENIBLE

AREATZA 19-22 ARENA

Oinez eta bizikletaz segurtasunez ibiltzea
Camina y pedalea con seguridad



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

BABESLEAK | PATROCINADORES



LAGUNTZAILEAK | COLABORADORES



KOMUNIKABIDEAK | MEDIOS DE COMUNICACIÓN

